



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko urtarrilaren 2a

1. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VI. Titulua aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketa (15. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da funts publikoak erretira ditzan lehenengo etxebizitzaren utzarazpenak gauzatzen dituzten entitate finantzarioetatik. Sustapen Batzordeak onetsia (16. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak exijitzen du berehala gelditu dadin oinarrizko laguntzako osasun etxeen eta premiazko zerbitzu jarraituko puntuen ordutegia arautzen duen Foru Dekretuaren izapidetzea. Osasun Batzordeak onetsia (16. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan onetsi oinarrizko laguntzako osasun etxeen eta premiazko zerbitzu jarraituko puntuen ordutegia arautzen duen Foru Dekretua. Osasun Batzordeak onetsia (17. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuko langileen lan egutegia 2013rako (18. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorren ordutegi ofiziala 2013rako (19. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa. Proiektu hori 2012ko urriaren 15eko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa, zeinak Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 8. artikulua aldatzen baitu; hain zuzen ere, 5. idatz-zatia honela geldituko da.

“5. Ente instrumentalek baliabide material eta tekniko egokiak eduki beharko dituzte enkarguaren xede den prestazioaren zati handiena edo zati adierazgarri bat gauzatzeko, nahiz eta enkarguaren xede diren prestazioak emateko azpikontratazioak ere egin ahal izanzen dituzten. Azpikontratazio horiek ezin izanzen dute kontratuaren prezioaren ehuneko 50 baino gehiagoko exekuziorik hartu. Ondorio horietarako, ez dira hirugarren zat joko entitate enkargu-egileen beste ente instrumental batzuk. Enkargu horien esleipena foru lege honen arauen menpe egonen da.

Horretarako, enkargua egiten zaion ente instrumentalak, enkargua jaso eta bost eguneko epean, justifikatu egin beharko du, enkargua egiten dion enterean aurrean, horretarako baliabideak baditu-ela. Baliabiderik ez duela jotzen bada, enkarguaren xede den prestazioa foru lege honetan jasotako prozeduren arabera lizitatu beharko da.

Salbuespen gisa, kontratazio-portzentaje hori gainditzen ahalko da; betiere, zorrozki justifikatzen bada horretarako arrazoi justu bat bada, bidea emanen duena enkarguaren exekuzioa ekonomikoagoa, eraginkorragoa edo efizienteagoa izateko; esate baterako, merkatuaren ezaguera berezia, enpresa-antolamendu hobea edukitzea aurrera eramateko prestazioaren edo jardueraren exekuzioa –oro har hartuta–, edo bestelako arrazoiaren bat, justifikatuko duena enkarguak prestazioari balio erantsi bat ezarriko diola azkenean.

Enkargu batean muga hori gainditu nahi bada, zenbatekoa edozein dela ere, Nafarroako Kontratazioaren Atarian publizitatu beharko da.”

Zioak: Lege proiektu honek aldarrikatzen duen gardentasunaren mesedetan, pentsatzekoa da ondorio ezin dela izan legeak berak ezartzen dituen prozeduretatik kanpoko zeharkako kontratazio bat. Enkargua egin behar duen baliabide berekiak ez badu baliabiderik zerbitzua egiteko, ez du gaitasunik enkargu hori hartzeko, eta, horren larrigarri, ente instrumentalak aplikatuko dituen kontratazio-arauak gardentasun eta efizientzia eskasagokoak direla Nafarroako Gobernuak aplikatuko litzuzkeenak baino. Ente instrumentalak ezin badu bere kabuz eta bere baliabideekin Gobernuaren enkargu bat aurrera eraman, justuagoa iruditzen zaigu Gobernuak lizitaziora ateratzea enkarguaren xede den prestazioa, kanpoko edozein enpresak parte har ahal izateko. Horrela, kontratazioen bidez zeharka irabazian atera daitezkeen enpresei buruzko susmoak uxatzea lortzen da, ente publikoek kontrataziook kontrol publikotik kanpo egin bailitzakete.

Lege-iruzurra ekidin nahi da, baliabide berekian eginkizuna ez dadin soilik izan hirugarrenen kontratazioak tramitatzea. Araubide juridiko zorrotzagoaren aplikazioa saihestea litzateke hori. Izan ere, baliabide berekiak, Bigarren Liburua duenez araubide, modua du, 193. artikulua arabera, publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiltzeko (3 eskaintza) atalasetik beherako kontratue-

tan (baldin eta balio zenbatetsia, obretan, 5.000.000tik beherako bada, eta, gainerakoetan, 200.000tik beherakoa).

Horrela, iruditzen zaigu ez dela kontuan hartu zer txosten egin zuen Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Administrazio Kontratazioarako Batzorde Aholku-emaileak (65/07 txostena, 2009ko urtarrilaren 29koa), zeinak, baliabide bereki batek izan behar dituen ezaugarriak zehaztean, honakoa esaten baitu: “Azken baldintza bat ere gehitu beharko da, nola baita egokitasuna izatea, betiere, kudeatzeko gomendioa exekutatzeko; horrela, langileak eta beharrezko baliabide material zein teknikoak izan beharko ditu gomendioa exekutatzeko”.

Balear Uharteetako Batzorde Aholku-emaileak uztailaren 21eko 1/2010 txostenean xedatzen duenez, “baliabide berekiak aski baliabide ez izatea enkargua gauzatzeko ez dirudi zuzenbide komunitarioaren aurkakoa denik, eta bertako zuzenbidean ere ez du debeku espresurik”. Kontuan hartu behar da entitate instrumentalei egiten zaizkien kudeaketa-enkarguak, Europar Batasuneko jurisprudentziak konfiguratu dituen moduan, salbuespenezkoak direla, eta, beraz, interpretazio murriztailea egin behar da, eta justifikatuta egon behar dute. Enkargua exekutatzeko gerta daitezkeen ekonomia-, eraginkortasun- edo efizientzia-arrazoiekin justifikatu behar da hori, hau da, prestazioa hobeki exekutatu delako egiten da, halako moduz non ente instrumental baten esku uzteak (Sektore Publikoko Kontratuaren Legeko arau orokorrrak alde batera utzita) balio erantsi bat izan den, ohartzeko edo neurtzeko modukoa, kantitatearen eta/edo kalitatearen ikuspegitik (...).

Txosten horren arabera, “baliabide berekitzat eta zerbitzu teknikitza jotzen den entitateak baliabide material tekniko egokiak izan behar ditu, gutxienez ere enkarguaren xede den prestazioaren zatirik handiena edo zati adierazgarri bat exekutatzeko, nahiz eta hori ez den eragozpen hirugarren batekin kontraturen bat sinatzeko enkarguaren xede den prestazioak gauzatu ahal izateko”. (*La traducción es mía y dado que no tengo conocimientos de catalán puede no coincidir exactamente con el texto original en dicha lengua).

Andaluziako Kontratazio Administratiborako Batzorde Aholku-emaileak kudeaketa- edo exekuzio-gomendioen inguruko zenbait gai aztertu zituen azaroaren 27ko 2/2008 txostenean. Txosten horrek hau zioen: “portzentaje-mugarik ez dagoenez horniduretan edo zerbitzuetan kolaboratuko duen enpresaburuekin kontratatuzeko, zalantza sortzen zaigu gomendio utzitako jarduketa zer unetan kontratatu zaion hirugarren bati eta gelditu den osoki haren

ardurapean, halako moduz non ente instrumentala jarduketa exekutatzetik jarduketa hori kudeatzera pasatzen den”. Esaten du, halaber, ez dagoela mugarik enpresaburu partikularrekin kolaboratzeko, eta ehuneko 50eko muga ez dela aplikatzekoa (“gure ustez, ulertu behar da ez dagoela mugarik enpresaburu partikularren kolaborazioari dagokionez; enkargua edo gomendio utzitakoa exekutatzeko erabilitako funtsak justifikatzeko modu desberdinak daude. Eta funtsen onuraduna ente instrumentala denez, logikoa da kredituaren disponibilitatea –enkargua edo gomendio utzitakoa dela eta– fiskalizatzea, nahiz eta ez den beharrezkoa sinatuko diren kontratuen zenbateko zehatzak fiskalizatzea, edozein dela ere justifikazio sistema. Hori horrela da, zeren eta justifikazio-sistema baldin balitz izaniko kostu errealea, kreditu-minorazioak gerta litezke bai jarduketa likidatzean, bai jakin bezain laster kredituaren zer zati aurreikusten den ez dela xedatu behar.”) Horrela, ondorio honetara iristen da: (...) “2. Jarduketa bati buruzko exekuzio-enkarguak edo kudeaketa-gomendioak eragin dezake obra exekutatzeko ente instrumentalaren giza baliabideekin eta baliabide materialekin, eta, kasua bada, enpresaburu partikularren kolaborazioarekin, portzentajea edozein dela ere. Edo, bestela, eragin dezake jarduketa osorik kontratatzea hirugarren batekin; kasu horretan, ente instrumentalak parte hartzen du jarduketaren kudeaketa-zerbitzu gisa. 3. Adjudikazioak egiten dituen botere gisa, enpresak kontratu publikoei buruzko xedapen harmonizatuak bete beharko ditu kontratuen zatikatzeari dagokionez, eta, atalasetik gora dauden kontratuetan, sorta edo multzoetarako ezarritako arauak aplikatu beharko ditu. 4. Justifikazio-sistema egokiena, ente instrumentalak arrisku gehiena bere gain hartzen duenerako, kostu errealean tarifa adierazgarrien bidezkoa izan behar litzateke. 5. Aitzitik, arriskua kontratista batengana pasatzen denean osoki edo nagusiki, justifikazioa gauzatu litzateke hirugarrenen prestazioak zuzenean eragin dituen kostu errealean bidez, eta kostu korporatiboen ehuneko ere fakturatuko litzateke. Ente instrumentalak tarifak jaso ahal izan behar ditu izaera osagarria duten unitate-engatik, eta tarifa horiek fakturatuko ditu aipatutako portzentajearekin edo kudeaketa-tarifarekin batera”.

2. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuari artikulua berri bat, 2.bis artikulua, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

2. bis artikulua. Aldatu egiten da Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen

18. artikuluko 1. idatz-zatiaren d) letra. Testu hau izanen du:

“d) Indarra duten xedapenek ezartzen dituzten betebeharrak tributariorak edo Gizarte Segurantzakoak beterik ez izatea, edota, kasua bada, Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 3/1982 Legearen 38. artikuluan 1. idatz-zatiko betebeharrak, erregelamenduz ezarritako moduan.

Zioak: Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 3/1982 Legearen 38. artikuluan xedatu zen (testua Neurri Fiskal, Administratibo eta Sozialei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legeak ezarri zuen) ezen, 50 langile edo gehiagoko enpresetan, lanpostuen gutxienez ehuneko 2 erreserbatu beharko zirela ezgaitasuna zuten pertsonentzat. Saio horrek utzi dituen emaitzak, ordea, ez dira oso onak izan arau hori betetzeari dagokionez: mekanismo aski ez da izan aplikatzea ziurtatzeko, eta enpresek, oro har, ez dute erreserba hori egiteko betebeharrak bete. Arau horrek minusbaliatuak gizarteratzeari dagokionez ezartzen dituen betebeharrak errespetatzeak garrantzia du, xedapen tributariorak edo Gizarte Segurantzakoak errespetatu beharrak duen garrantziaren antzekoa, eta, beraz, justifikatuta dago ez-betetze horrek ondorio izatea kontratatzeke antzeko behar bat.

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko zuzenketa, zeinak Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 45. artikulua aldatzen baitu. 5. idatz-zatia aldatu, eta honela geldituko da:

“5. Kontratuaren baldintza ekonomikoak aldatzeaz 105.2.a) artikuluan aurreikusitako prerrogatibaz baliatzeko, administrazio klausula partikularren agirian aipatu eta arautu beharko da aukera hori, bai eta adostu daitezkeen aldaketen norainokoa eta mugak ere, espresuki adieraziz esleipen prezioaren zein gehieneko ehunekori eragin ahal dion; portzentajea hori ez da inola ere izanen ehuneko 20tik gorakoa”.

Zioak: Nahi dena baldin bada abusurik ez egoitea kontratuen aldaketekin zerikusia duen guztian, ez dirudi arrazoizkoa klausula administratibo partikularrek ehuneko 50eko muga onartzea, nahiz eta hori baldintzetan adierazita egon. Saiatu behar da lizitzaileek, lizitazioetan, ahalik eta gehiena hurbil daitezkeen eskaintzaren xede den lanaren benetako preziora; are gehiago, baldintzetan ageri diren aldaketak direnean. Eta arrazoizkoa iruditzen

zaigu, gehienekoa portzentajea, izatekotan, ehuneko 20an ezartzea.

4. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeari 8.bis artikulua gehitzeko zuzenketa.

“8. bis artikulua.

1. Lege honen pean dauden entitateek eginiko kontratu eta emakidak zuzenean esleitu ahal izanen zaizkio kapital mistoko entitate bati, baldin eta kapital publikoa eta pribatua badu edo izatekoa bada. Esleipen horiek ez dira enkargutzat joko.

Lizitazio bakarra, gardena eta lehiakorra egingen da, xede izanen dituen bazkide pribatua hautatzea eta kapital mistoko entitateari esleitu behar zaion kontratua edo emakida, bai eta bazkide pribatuak zeregin horien exekuzioan emanen duen laguntza operatiboa eta/edo kapital mistoko entitate kudeatzeari dagokionez emanen duen laguntza administratiboa. Bazkide pribatuaren hautaketa kapital mistoko entitatearen sorrerarekin batera joanen da –halakorik ez badago–, eta kontratua edo emakida entitate horri esleitzeari batera.

2. Sortzen den kapital mistoko entitateak baliabide material eta tekniko egokiak eduki beharko ditu enkarguaren xede den prestazioaren zati handiena edo zati adierazgarri bat gauzatzeko, nahiz eta enkarguaren xede diren prestazioak emateko azpikontratazioak ere egin ahal izanen dituen. Azpikontratazio horiek ezin izanen dute kontratuaren prezioaren ehuneko 50 baino gehiagoko exekuziorik hartu.

3. Bazkide pribatua hautatzeko prozedura elkarritzeta lehiakorrarena izanen da. Foru lege honen II. B eranskinean jasotako kontratuak esleitzeko, zerbitzuen emakidarako kontratuak edo laguntzako kontratuak hain zuzen, kontratu negoziatua erabiltzen ahalko da, lizitazioaren publikitatea eginda aurretiaz Nafarroako Kontratazioaren Atarian.

Lizitazioa Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratuko da, eta foru lege honetako 83. artikuluan ezarritako zenbatekoak gainditzen baditu, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean.

4. Baldintza-agirian jasota egon beharko dira kapital mistoko entitateari esleitu behar zaion kontratuaren deskribapena, entitatearen estatutuak eta akziodunen ituna, non araututa egonen baita zer harreman izanen duten esleipena hartzen

duen entitateak eta kapital mistoko entitateak; eta baldintzen agirian jasota egon beharko da, halaber, zer elementuk arautuko dituzten, batetik, entitate esleipen-hartzailearen eta bazkide pribatuaren arteko harreman kontraktuala, eta, bestetik, entitate esleipen-hartzailearen eta sortu behar den kapital mistoko entitatearen arteko harremana.

Lizitazio-iragarkian, kapital mistoko entitateak exekutatu beharreko kontratuari edo ustiatu behar duen emakidari zer iraupen aurreikusten zaion jasoko da, eta modu argi eta zehatzean adieraziko da zer aukera dauden eginkizun berriak esleitzeko, horiek ere kontuan hartuta kontratuaren balio zenbatetsian.

Jasota egon beharko dute, kasua bada, erabaki daitezkeen aldaketen irismena eta mugak, eta espresuki adierazi beharko da esleipen-prezioaren gehienez ere zer ehunekorri eragiten ahalko dioten balizko aldaketek, kontuan hartuta ehuneko hori ezin izanen dela inola ere esleipen prezioaren ehuneko 50 baino handiagoa izan. Exekuzio-fasean, foru lege honetan aldaketa kontraktualetarako modu orokorrean ezarritako araubidea izanen da aplikatzeko. Kontratuaren funtsezko alderdiren bat aldatzen bada eta ez badago baldintza-agirian aurreikusia, edota botere esleitzailer arduratsu batentzat aurreikusezinak diren zirkunstantziengatik gertatzen bada aldaketa hori, beste lizitazio prozedura bat egin beharko da.

Bereziki, adjudikazioaren baldintzetako batzuk doitu egin nahi baldin badira esleipen-hartzailea hautatu ondoren, egokitze-aukera horiek eta aplikazio-modalitateak espresuki egon beharko dute jasoak lizitazio-iragarkian edo baldintza-agirietan, eta zehaztuta egon beharko du zer markotan gauzatu beharko den prozedura, halako moduz non parte hartzeko interesa duten enpresa guztiek hasieratik izan dezaten horren berri eta, beraz, aukera berdintasuna izan dezaten eskaintza aurkezterakoan.

5. Bazkide pribatua hautatzeko irizpide izanen dira, jartzen duen kapitalaz gain, hautagaiaren gaitasun tekniko edo profesionala eta gaitasun ekonomiko edo finantzarioa, eta, egin beharreko prestazio espezifikoei dagokienez, egindako eskaintzaren ezaugarriak.

Aplikaturako irizpideek diskriminazio ezaren printzipioa errespetatu beharko dute, eta ez dira justifikaziorik gabeko oztopo izanen zerbitzuak emateko askatasunarentzat edo establezimendu askatasunarentzat, eta ezin izanen dute ekarri, orobat, lortu nahi den helburua kontuan hartuta gehiegizkoa den betebeharririk ere."

Zioak: Batzorde Europarraren komunikazio interpretatibo bat baino gehiago izan da exijituz lankidetzako publiko-pribatuari aplikatzekoak zaizkion zuzenbide europarreko xedapenak errespetatu daitezela.

Lankidetzako publiko-pribatuko bi motetatik –kontraktuala bata eta instituzionala bestea– jotzen da Kontratuei buruzko Foru Legeak lehenbizikoa jasotzen duela 4. artikuluan zehaztutako kontratuekin. Lege horretan, hala ere, ez dago araurik lankidetzako publiko-pribatu instituzionalizatuari buruz.

Garantizatu behar da kontratuen exekuzioaz arduratuko den bazkide pribatuaren hautaketa kontratazioaren printzipio gidariak errespetatuz egiten dela; bereziki, publizitatearen eta gardentasunaren printzipioak.

Ez da onargarria Los Arcosko zirkuituan gertatu zena: proiektu zehatz baterako zen sozietate baten partaide izatera pasatzea Nafarroako Gobernua, eta, gero, proiektu horren funtsezko elementuak aldatzea eta bestelako lizitaziorik ez egitea, halako moduz non kapital mistoko entitate horretako bazkideetako batek jarraitu zuen obra exekutatu, tartean publizitaterik izan gabe. Eta hori kontua hartu gabe entitate publikoek, betiere helburua interes publikoa denean, zer partaidetza izan behar duten. Uste dugu hori ezin daitekeela lehia askearen printzipioari ihes egiteko aitzakia izan. Are gehiago, baldin eta, behin kontratua esleituta, partaidetza publikoa nabarmen handitzen bada, eta subjektua beste bat bihurtzen bada. Hori, gure ustez, lege iruzur garbia da, eta saihestu beharra dago, bateratuz, betiere, jardueraren ekonomikoetan parte hartzea eta urratutako gardentasuna. Zehazki, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak, 2005eko urtarrilaren 11ko epaian, Stadt Halle auzian, osatu egin zuen "in house" harremanen definizioa –harremanok, orain, lege proiektuan jaso ditu Gobernuak–, eta ezarri zuen entitate esleitzailer batek kostu bidezko kontratu bat egiteko asmoa badu juridikoki berezia den sozietate batekin, zeinaren kapitalean entitateak partaidetza baitu enpresa pribatu bat baino gehiagorekin batera, beti aplikatu behar dira kontratazio publikoari buruzko zuzentarauetan jasotako kontratazio publikorako prozedurak, horien aplikaziorako gainerako baldintzak betetzen badira.

Comptos Ganberak, Los Arcosko zirkuituari buruzko txostenean, gomendatu zuen jarduketaren esparru bat ezartzea "jarduteko modu berri" hauek, halako moduz non hasieratik Administrazioa izanen bailitzateke kapitalaren gehiengoa izanen lukeena, eta lehia-sistemaren bat erabiliko bailitzateke sozio pribatua hautatzeko. Hori da zuzenketa honekin lortu nahi dena.

5. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 51.1.b) artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke:

“b) Gainerako kasuetan, eskaintza onuragarriena zein den zehazteko, kontratuaren xedearekin lotura duten irizpideak erabiliko dira, eta lehentasuna emanen zaie, irizpide subjektiboen aurretik, formula bidez baloratzeko moduko irizpideei; puntuazioaren ehuneko 50 gutxienez, irizpide horien bidez emanen da.

Irizpideak zehaztasunez ezarriko dira; zein garrantzi erlatibo duten espezifikatuko da, eta kontratuaren xedearekin egon beharko dute lotuta. Irizpide gisa ezarriko dira, esate baterako, kalitatea edo kalitatearen kontrolerako mekanismoak, prezioa, eskaintzaren balio teknikoa, ordezko produktuen eskuragarritasuna, ezaugarri estetiko eta funtzionalak, ingurumenari dagozkion ezaugarriak, funtzionamendu kostua, errentagarritasuna, salmenta ondoko zerbitzua eta laguntza teknikoa, emate data eta ematearen edo exekuzioaren epea, eta antzeko beste batzuk. Hobekuntzak aurkezteko aukera baloratzen bada, adierazi egin beharko dira hobekuntza horien baldintzak, mugak, modalitateak eta aski identifikatzeko bidea emanen duten ezaugarriak, eta kontratuaren xedearekin zerikusi zuzena izan beharko dute”.

Zioak: Prezioaz gain beste zenbait irizpide ere badaudenean, exijitzen da irizpideok formula matematikoen bidez zehazteko modukoak izan daitezela. Horrekin nahi dena da esleipen publikoetan irizpide subjektibo eta anbiguo gehiegi ez izatea eta, horrela, arbitrariotasuna ekiditea. Uste dugu neurri honek gardentasun eta lehia handiagoak dakartzala; aldi berean, informazio gehiago emanen da kontratatu nahi denari buruz, eta aldatketak murriztu egingen dira; eskaintzak prestatzerakoan ere, hobeto jakinen dira zein diren exigentziak.

6. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua aldatzeko zuzenketa, zeinak Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 54. artikulua aldatzen baitu. Artikulu horretako 4. idatz-zatiaren aldaketa proposatzen da. Honela geldituko litzateke:

“4. Administrazio klausula partikularren agirietan ondokoa ezarri ahalko da: artikuluko honen 1. idatz-zatiaren a), d) eta e) letretan eskatzen den hasierako dokumentazio-ekarpenaren ordez lizitazioaileak erantzukizuneko aitortpena aurkez dezala, kontratatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela dioena. Halakoetan, esleipen proposamena bere alde jaso behar duen lizitazioaileak gehienez zazpi eguneko epea izanen du, kontratazio mahaiak edo kontratua kudeatzen duen unitateak hala dela jakinarazten diotenetik, eskatzen diren agiriak badituela eta baliozkoak direla frogatzeko.

Behar diren agiriak epe horretan aurkeztu ezean, lizitazioailea prozeduratik kanpo geldituko da, eta lizitazioarako jarritako bermeak kenduko zaizkio edo kontratuaren balio zenbatetsiaren ehuneko 5eko zigorra ordaindu beharko du, bai eta kalte-ordain osagarria ere, portzentaje horren gainetik eragindako kalte eta galerengatik”.

Zioak: Asmoa da indartzea erantzukizuneko aitortpena, prozedurari arintasuna emateko tresna gisa; baina, aldi berean, nahi da lizitatzen duena jabetzea ezen zenbat eta handiagoa izan erraztasuna, orduan eta handiagoak izanen direla exigentziak, eta orain arte baino handiagoa penalizazioa. Horregatik proposatzen dugu penalizazioa ehuneko 2tik ehuneko 5era pasa dadila, disuasio-neurri gisa, lizitazioarako behar den dokumentazioa edo gaitasuna ez duenak ez dezan lizita, ez dezan prozesua moteldu eta ez ditzan kaltetu betebeharrak guztiak egunean eta baldintza guztiak betetzen dituztenak, horiei esleipen-hartzaile izateko proposatuak izateko bidea itxiz.

7. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

14. artikulua aldatzeko zuzenketa, zeinak Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 92. artikulua aldatzen baitu. 92. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiak aldatzen dira. Honela geldituko dira idatzita:

“1. Kontratuaren esleipena gehienez ere 20 eguneko epean egin beharko da, baldin eta esleipenerako irizpide bakarra eskainitako prezioa bada, edo hilabeteko epean, berriz, irizpidea eskaintzarik onuragarriena bada. Epea kontatzen hasiko da eskainitako prezioak irekitzeko ekitaldi publikoa izaten den unetik, non eta klausula partikularren agirian ez dagoen epe laburrago bat aurreikusita edota beste egun bat, epea kontatzen hasteko”.

Zioak: Gaur egungo agertoki ekonomikoan, beharrezkoa da kontratatzen diren zerbitzuak lehenbailehen jartzea merkatuaren eskueran. Esleitzeko irizpidea eskaintzarik onuragarriena denean, epea laburtu eta erdira ekartzea proposatzen da (bi hilabetetik hilabete batera). Gogoratu behar da E Planean (Toki Inbertsioetarako Estatu Funtza), esleipen-epea hilabetekoa izan zela, eta udalak gai izan ziren, oro har, epe horiek beteitzeko. Ekonomia dagoen bezala egonda, eta izapideak arintzea funtsezkoa denean ekonomia dinamizatzeko, beharrezkoa da arintze horretan indar egitea eta, kontratuaren esleipenari dagokionez, Administrazioaren epeak laburtzea.

8. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16. artikulua aldatzeko zuzenketa, zeinak Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 94.2. artikulua aldatzen baitu.

“2. Kontratua ez bada behar den epean formalizatzen kontratistari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik, kontratazio organoak aukeran izanen du edo kontratua suntsiarazi, interesatuari entzun ondoren, lizitazioarako jarritako bermeak konfiskatzearekin batera edo interesatuari penalizazio gisa ordainaraziz kontratuaren balio zenbatetsiaren ehuneko 5 gehi kalte-ordain osagarri bat portzentaje horren gaineratik eragindako kalte eta galerengatik; edo, bestela, beste epe bat eman, luzaezina, eta kontratuaren gauzatzea atzeratzen den kasuetarako administrazio klausula partikularren agirian aurreikusten den zigor araubidea aplikatu”.

Zioak: Nahi dena da penalizazioa areagotu, epeak bete daitezen kontratuak formalizatzeari. Penalizazioaren ehunekoa handituta, epe horiek luzatzeko saio arduragabeak egiteko asmoak uxatu nahi dira. Administrazioari exijentzia handiagoak jartzen badizkiogu azkarragoa izan dadin, zigorrak ere handitu egin behar ditugu interesdunek ez ditzaten luza epeak kontratuak formalizatzeari.

9. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

18. artikulua aldatzeko zuzenketa, zeinak Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 105. artikulua aldatzen baitu; hain zuzen ere, honela geldituko litzateke 3. idatz-zatia:

“3. Aldaketa guztien zenbatekoa, batera, ez da kontratuaren esleipen prezioaren ehuneko 20tik gorakoa izanen”.

Zioak: Legea aldatzearen helburua bada garrantasuna lortzea eta ateak ixtea kontratuek hasierako eskaintzaren ondoren izaten dituzten aldaketek, aldaketen prezioek ehuneko 50etik behera egon behar dute; izan ere, hortik gorako aldaketak, gure ustez, gehiegizkoak eta funtsezkoak dira. Kontratuak eta prezioak hasieratik doitu behar dira ahalik eta hoberen, espedientearen hasieratik. Gaur egungo egoera ekonomikoan, eta ziurtatzeko hasieran hautatutako eskaintza dela egokiena, ezin da kontratuan aldaketa handirik egon, bestela beste parte-hartzaile batzuek eskaintza desberdinak egingen zituzten, egokiagoak, akaso, esleipena hartu eta kontratua ehuneko 50era arte aldatu duenarenak baino.

10. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

18. artikulua aldatzeko zuzenketa, zeinak Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 105. artikulua aldatzen baitu; hain zuzen ere, 5. idatz-zatia honela geldituko litzateke:

“5. Aurreko baldintzak betetzen dituzten aldaketak nahitaez bete beharrekoak izanen dira kontratistarentzat. Unitateak kendu edo murrizten direnean kontratistak ez du eskubiderik izanen inolako kalte-ordainik eskatzeko”.

Zioak: Aurreko zuzenketak onartu eta aldaketa kontraktualak ehuneko 20ra mugatzen badira, oraingo arauaren testuak ez du zentzurik, aldaketen ehuneko 20 nahitaezkoak izanen direla ezartzen baitu. Garrantzizkoa dena da aldaketak behar-beharrezkoak direnak bakarrik izatea, eta, murrizketa kontuan hartuta, beti izatea nahitaezkoak.

11. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

19. artikulua aldatzeko zuzenketa, zeinak Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 106. artikulua aldatzen baitu; hain zuzen ere, 3. idatz-zatia honela geldituko da:

“3. Hornidura eta laguntza kontratuetan, aldaketa egiten bada kontratuan ez dauden edo ezaguri oso desberdinak dituzten unitate berriak sartzeko, prezioak negoziazio prozesu batean finkatu

beharko dira. Administrazioaren eta kontratistaren artean akordiorik ez badago, Administrazioak unitate berri horiek foru lege honetan aurreikusitako prozeduren bidez lizitatuko ditu.

Aurrekoa gorabehera, hornidura eta laguntza kontratuetan, aldaketa denean unitate berriak sartzeari, kontratuan ez zeudenak edo ezaugarri oso desberdinak dituzten unitateak, eta aldaketa horiek kontratuaren esleipen prezioaren ehuneko 20ra iritsi direnean, ezin izanen da kontratua exekutatzen jarraitu, eta beharrezkoa izanen da foru lege honetan ezarritako prozeduren arabera lizitazio berri bat egitea, kontratu berriak dituen izaeraren eta zenbatekoaren arabera.”

Zioak: Ulertzen da ez dagoenean kontratistaren eta Administrazioaren arteko akordiorik kontratuan jaso gabeko unitate berrien prezioaren inguruan, kontratua lizitatu egin behar dela, ez urgentziak eragindako prozedura negoziatu publikitate gabekoaren bidez –arauak, orain arte, horretara bultzatzen zuen–, baizik eta kasuan kasuko prozedurara joz. Asmoa da ez dezala eman unitate berriak lizitatu daitezkeela publikitate gabeko prozedura baten bidez, hiru enpresa gonbidatuz. Horrek ekar lezake prozedura faltsutzea, unitate berrien adjudikazio-hartzailea izan dadin hasierako kontratuaren adjudikazio-hartzaile bera.

Bigarrenik, ulertzen da hornidura eta laguntza kontratuek hasieratik egon behar dutela ongi zehaztuak, eta ehuneko 20ko tarte bat eman behar dela, tarte “arrazoizko” bat, kontratu horietan jaso gabeko balizko unitate-aldaketetarako. Hori abiapuntu hartuta, ulertzen dugu aldaketek etorri behar dutela Kontratuei buruzko Foru Legean ezarritako prozeduren arabera lizitazio berri baten bidetik. Horrek gardentasun handiagoa emateko ere balio du, eta aldeek kontratu mota horren edukia hobeto zehazteko ere bai. Lizitazio berri baten aurretik eta ondotik, ehuneko 50ak gehiegizko tarte dirudi.

12. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

21. artikulua aldatzeko zuzenketa. 6/2006 Foru Legearen 126. artikuluko 2. idatz-zatia honela gendituko da:

“b) Krediturik ez egotea edo aski ez izatea Kontu-hartzailetzak fiskalizazio-egintza ematean, edo, halako fiskalizaziorik beharrezkoa ez denean, egoera hori esleipenaren unean gertatzen denean, kasuan kasuko administrazio publikoari aplikatu beharrek aurrekontu arauetan ezarritakoaren

arabera, larrialdiko prozeduretan izan ezik. Inola ere ezinen da huts hori geroago zuzendu aurrekontu-aldaketa baten bidez.”

Zioak: Hobekuntza teknikoa: zehaztu egiten da zer unetan exijitzen ahal den kredituaren xedapena, eta une horretatik aurrera ezin izanen dela huts zuzenketarik egin. Izan ere, hori da jurisprudentziak markatu duen ildo, eta, gainera, segurtasun juridikoa eman nahi zaio prozedurari eta ez dadila batzuetan sortzen den nahasbidea sortu deuseztasun-arrazoi horren aplikazio zuzenari buruz.

13. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 133.1 artikulua aldatzeko zuzenketa.

Honela gendituko da 1. idatz-zatia:

“1. Proiektua eta obra batera kontratatzen badira, enpresaburuak obraren proiektua aurkeztuko du, Administrazioak aurreproiektua edo horren pareko agiria egin ondoren. Interes publikoko arrazoi justifikatuak egonez gero, administrazioak zilegi izanen du proiektuak bete beharko dituen oinarri teknikoak egitera mugatzea. Kontratazio horiek salbuespenezkoak izanen dira, eta kasutan soilik egiten ahalko dira: a) Arrazoi teknikoak direla-eta, kontratista, ezinbestez, obren azterlanei lotu beharra dagoenean. b) Obren tamaina edo zailtasun tekniko bereziak direla-eta, enpresaren baliabideen eta berezkoa duen gaitasun teknikoaren bidez soluzioak eman behar zaizkienean”.

Zioak: Proiektua eta obra batera kontratatzearen aukera jaso dago indarrean den Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 4. eta 133. artikuluetan. Sistema honek arkitektoen arteko lehia desagerrarazten du, eraikitzailea baita proiektua erredaktatuko dutenak hautatzen dituena, horien hautapen publikorik gabe. Horrek salbuespena izan behar du; gaur egun, ordea, zenbait departamentuk, Hezkuntzakoak esaterako, ohiko bihurtu dute jokabide hori, eta auzitegiek behin eta berriz kondenatu dituzte. Nafarroako Auzitegi Nagusiaren eta arlo honetako aholkularitza-organoen doktrina ikusita, argitu egin nahi da zer kasutan egin daitezkeen kontratazio mota hori.

14. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

24. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

24. artikulua.

Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 183. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu, eta testu hau izanen du:

“1. Plan edo proiektuak egiteko, bereziki lurralde antolamenduaren, hirigintzaren, arkitekturaren, ingeniartzaren eta datu-prozesatzearen arloetan, Administrazioak proiektuen lehiaketa erabiliko du, zeinaren ezaugarri baita proiektuen lehiaketako parte-hartzaileekin loturarik ez duten pertsona fisikoek bakarrik osatutako epaimahai batek esku hartzen duela.”

Zioak: Administrazioak ez dezala “giltza esku-ra” izeneko prozedura abusuz erabil obra publikoen esleipenean.

15. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

24. artikulua aldatzeko zuzenketa, zeinak Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 183. artikulua aldatzen baitu; hain zuzen ere, honela geldituko da 1. idatz-zatia:

“1. Plan edo proiektuak egiteko, bereziki lurralde antolamenduaren, hirigintzaren, arkitekturaren, ingeniartzaren eta datu-prozesatzearen arloetan, Administrazioak proiektuen lehiaketa erabiliko du, zeinaren ezaugarri baita proiektuen lehiaketako parte-hartzaileekin loturarik ez duten pertsona fisikoek bakarrik osatutako epaimahai batek esku hartzen duela.”

Zioak: Zuzenketa honekin Arkitektoen Elkar-goaren nahia biltzen da; izan ere, orain gutxi, Parlamentuan eginiko lan bilkura batean, errebin-dikazio horren berri eman ziguten. Horrela, profesional horien lanari balioa ematen zaio, halako moduz non sustatuko den egon daitezela proiektuen lehiaketak saritzen dutenak parte-hartzea, eta esleipena egiten dutena langile independentek.

16. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

25. artikulua aldatzeko zuzenketa, zeinak Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 195. artikulua aldatzen baitu; hain zuzen ere, 1. idatz-zatiko 2. lerrokada honela geldituko da:

“Baldintza arautzaileetan ezarri ahal izanen da hasieran dokumentazioa aurkeztu ordez lizitatzai-learen erantzukizuneko aitortpena aurkez dadila, foru lege honetan kontrataziorako ezarritako baldintzak betetzen dituela dioena. Halakoetan, esleipen proposamena bere alde izanen duen lizitatzai-leak gehienez zazpi eguneko epea izanen du, inguruabar hori jakinarazten zaionetik, eskatzen diren agiriak badituela eta baliozkoak direla frogatzeko. Behar diren agiriak epe horretan aurkeztu ezean, lizitatzai-lea prozeduratik kanpo geldituko da, eta lizitaziorako jarritako bermeak kenduko zaizkio edo kontratuaren balio zenbatetsiaren ehuneko 5eko zigorra ordaindu beharko du, bai eta kalte-ordain osagarria ere, portzentaje horren gaitetik eragindako kalte eta galerengatik.”

Zioak: penalizazioaren portzentajea ehuneko 5era igotzen da, ulertzen baita ezen erantzukizuneko aitortpenaren tresnari balioa ematen bazaio izapide administratiboak arintzeko, egokia dela, horrekin batera, ondotik aurkeztekoa den dokumentazioaren egiazkotasuna, eta, halaber, esleipena behin-behinekoz hartu duen enpresak, dokumentazioa eskatzen zaionean, jokabide arduratsua izatea dokumentazio hori aurkeztean.

17. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

29. artikulua aldatzeko zuzenketa, zeinak Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 208. artikulua 4. idatz-zatia aldatzen baitu; hain zuzen ere, idatz-zati horretan beste letra bat gehitzea proposatzen da:

“i) Nafarroako Parlamentuan aurkeztea, horretarako zehazten den batzordean, urtealdiko txosten bat, zehaztuko dituen, batetik, zer esku-hartze izan dituen organo horrek, eta, bestetik, zer proposamen egiten dituen kontratazio-sistema efizienteagoa izan dadin eta, hala, zama administratiboak sinplifikatzeko.”

Orain arte i) letra zena j) letra izanen da.”

Zioak: Gardentasunean irabazteko, garrantzitsua da Parlamentuak zuzenean izatea Kontratazio Batzordeak bere lanean aurkitzen dituen zailtasunen berri, eta horren ondorio egiten dituzten proposamenen berri. Horrek ekar lezake Parla-mentua jabetzea problematika horiez, eta, kasu bada, beharrezkoak diren ekimen legegileak abiaraztea kontratazioari buruzko araudia problema horietara egokitzeko, helburu hartuta kontratazio efizienteago bat, balioko duena, halaber, enpresa txiki eta ertainei beharrezkoak ez diren zama burokratikoak ekiditeko.

18. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

29. artikulua aldatzeko zuzenketa, zeinak Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 208. artikulua aldatzen baitu; hain zuzen ere, 6. idatz-zatia honela geldituko litzateke:

“6. Kontrataziorako Batzordearen osaketa, antolaketa eta jardunbidea, bai eta kideek jaso beharreko lansariak ere, halakorik bada, erregelamenduz garatuko dira, kontuan hartuta ordainsari horiek, dietetan, ezin izanen dituztela gainditu Gobernuako kideentzat dieten arloan ezarritako mugak”

Zioak: Egokia iruditzen zaigu bat etortzea, hein batean, batzorde horretako kideek dietetan kobra dezaketena Gobernuako kideek araudi berriaren arabera enpresa publikoetako administrazio kontseiluetan kobra ditzaketen dieten zenbatekoarekin.

19. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

30. artikulua aldatzeko zuzenketa. Foru Legearen 208. bis artikulua berriak testu hau izanen du:

“208. bis artikulua. Nafarroako Lizitazio Publiko- en Kontrolerako Batzordea.

1. Nafarroako Lizitazio Publiko- en Kontrolerako Batzordea eginkizunetan independentea eta organiko- ki Kontratazio Publiko- en Batzordeari atxikia dagoen organo bat da; bere zeregina da zuzenbideari jarraikiz ebaztea kontratazio publiko- en arloko erreklamazioak, eta liburu honetan arautu- tako kautelazko neurriak hartzea.

2. Nafarroako Lizitazio Publiko- en Kontrolerako Batzordearen kide titularren zenbatekoa bakoitia

izanen da, eta hiru izanen dira gutxienez. Kideok izendapenerako zuzenbideko lizentzia edo gradua eskatu zaien jarduneko funtzionarioak izan behar- ko dute, Nafarroako Foru Komunitateko Adminis- trazioan, Nafarroako toki entitate batean edo foru lege honen peko beste entitate batean, eta mere- zimendu-lehiaketa bidez hautatuko dira. Prozedura berean, epe horretarako ordezkioak ere izendatu ahal- ko dira, kargua hutsik dagoen kasuan, edo titularra kanpoan edo gaixorik dagoen kasuan ari- zteko.

Batzordeburua merezimendu lehiaketaz hauta- tuko da; lehiaketa horretan, gutxienez ere 10 urte- ko eskarmentua izatea exijituko da, eta kontratazio publiko- en arloko prestakuntza berezia. Kontrolerako Batzordeko buruak Kontratazio Publiko- en Batzordeko sortzetiko kide izan behar- ko du.

3. Nafarroako Lizitazio Publiko- en Kontrolerako Batzordeko kideak independenteak eta aldaezinak izanen dira, eta ez zaie eragozpenik eraginen Batzordean emandako iritzi edo erabakiengatik; arrazoi hauengatik baizik ez dute kargua utziko:

a) Espainiako nazionalitatea edo funtzionario izaera galtzea.

b) Uko egitea.

c) Eginkizunetan aritzeko gaitasun eza, izenda- tu ondotik sortua.

d) Betebeharren ez betetze larria.

e) Askatasunaz gabetzeko zigorra jasotzea edo delitu batengatik lan edo kargu publikoan aritzeko desgaitze erabatekoa edo berezia.

c), d), eta e) letretan ezarritako arrazoiengatik batzordeko kide izateari uzteko, beharrezkoa izan- en da Kontratazio Publiko- en Batzordeak espe- dientea izapidetzea, eta Nafarroako Gobernuari bere proposamen loteslea igortzea.

4. Nafarroako Lizitazio Publiko- en Kontrolerako Batzordeko kideek batera betetzen ahal- ko dituzte batzordeko zeregina eta Administrazioan duten lanpostua, eta, kasu horretan, erregelamenduz ezartzen diren dietak jasoko dituzte ordainetan, funtzionario diren aldetik dituzten lansariekin bate- ragarri direnak, edo zeregin hori dedikazio eskusi- boarekin betetzen ahal- ko dute, erregelamenduz ezartzen den moduan.

Nafarroako Lizitazio Publiko- en Kontrolerako Batzordeko kide izatea ez da bateragarria izanen hauekin:

a) Nafarroako Administrazio Publiko- etako aurrekontuetako funtsak erabiltzeko ahalmenak dituzten administrazio organo- etako titular izatea.

b) Norbera edo beste norbait ordezkatzuz parte hartzea kontratazio publikoan.

c) Kontratu publikoen lizitatzailerik edo esleipen-hartzaile diren enpresetan zuzendari, kudeatzaile, administratzaile, kontseilurikide, bazkide kolektibo izatea, edo enpresetan horietan zuzeneko esku-hartzea dakarren beste edozein izaera edukitzea.

5. Abstentzio edo errekusatze kausak izan diren hala ezarriak modu orokorrean administrazio-prozedura erkideari buruzko legedian; bereziki, kausa horien artean daudela joko da aurkaratutako kontratu publikoaren kudeaketan parte hartzea, kontratu publiko horretan aholkularitza juridikoa ematea, bai eta foru lege honen mendeko Nafarroako Foru Komunitateko erakundeei, Foru Komunitateko Administrazio departamentuei edo haren erakunde autonomoei edo Toki Administrazio entitateei aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna duen organoaren burutza ere, aurkaratutako kontratuari buruzko txostena organo horri atxikitako langileek egina denean.

6. Nafarroako Lizitazio Publikoen Kontrolerako Batzordeko erabakiak eta ebazpenak bertan diren kideen gehiengoak hartu beharko ditu, biltzeko deialdia egin ondoren, eta idazkaria edo legez haren ordezkaria dena ere bertan dela, hizpidearekin, baina botorik gabe. Bozketan berdinketa gertatuz gero batzordeko buruak erabakiko du, bere kalitatezko bozarekin, edo haren eginkizunak betetzen dituenak. Kide guztiek dute boto partikularra egiteko eskubidea; idatziz arrazoituta, erabaki edo ebazpenei erantsiko zaie.

Idatz-zati honetan aurreikusirik ez dagoen guztian kide anitzeko organoak arautzen dituen administrazio arloko legeria aplikatuko da.

7. Kontratazio Publikorako Batzordeko idazkariak beteko ditu Nafarroako Lizitazio Publikoen Kontrolerako Batzordeko idazkari lanak.

Era berean, Nafarroako Kontratazio Publikorako Batzordeari laguntzeko administrazio unitateak laguntza tekniko eta administratiboa emanen dio Nafarroako Lizitazio Publikoen Kontrolerako Batzordeari bere lanak betetzeko.

Zioak: Kontrolerako Batzordeko kideen erabakiteko independentzia, inpartzialtasuna eta profesionaltasuna ziurtatzeko, hautapena merezimenduen lehiaketa bidez dago egin beharra eta lanpostua finkoa izan da, izaera funtzionarioleko lanpostuei dagokien bezala. Foru lege proiektuan aurreikusitako izendapen-modua eta iraupenak izaera politikoagoa ematen die izaera tekniko baina gehiago. Lanpostuan jarraitzea edo ez jarraitzea baldin badago izendatzen duen organoaren boron-

datearen menpe, pertsona horren independentzia urratua gerta daiteke. Kideen kopurua erregela-mendu bidez ezarri behar da, non aukeran utzi behar den dedikazioa partziala edo eskusiboa izan den; betiere, zein den ebatzi beharreko erreklamazioek eragiten duten lanaren zenbatekoa eta zama.

Abstentzio edo errekusatze kausak modu herztian daude ezarrita administrazio prozedura erkideari buruzko legedi estatal oinarritzeko. Organoren kideek duten izaera funtzionarioala kontuan hartuta, ez dago besterik aplikatzerik; bereziki, epaile eta magistratuei dagozkienak.

20. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

30. artikulua aldatzeko zuzenketa, zeinak Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 208. bis artikulua aldatzen baitu. Onartuz gero, lege guztian aldatu beharko litzateke "Nafarroako Lizitazio Publikoen Kontrolerako Batzordea" izena.

"Nafarroako Lizitazio Publikoen Kontrolerako Batzordea" izenaren ordezkari hau jartzea: "Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegia".

Zioak: Iruditzen zaigu beharrezkoa dela errekurtsioak ebatzi behar dituen organoaren izena izatea sortu diren gainerako auzitegien parekoa; hau da, auzitegi zentralaren, autonomikoen bai eta tokikoaren parekoa ere. Ez dago Espainian baliabide kontraktualei buruzko organo kolegiaturik Nafarroako Gobernuak proposatzen duen izenaren antzekorik duenik.

Esate baterako: Baliabide Kontraktualen Auzitegi Zentrala, Gaztela eta Leóngo Baliabide Kontraktualen Administrazio Auzitegia, Aragoiko Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegia, Madrilgo Erkidegoko Kontratazio Publikoko Administrazio Auzitegia, Andaluziako Juntako Baliabide Kontraktualen Administrazio Auzitegia, eta abar. Baita toki auzitegiak ere: Sevillako Baliabide Kontraktualen Administrazio Auzitegia eta Granadako Baliabide Kontraktualen Administrazio Auzitegia.

Ez dugu arrazoirik aurkitzen beste izen bat izan dezan. Kontuan izan behar da Botere Judizialaren Lege Organikoaren 10. artikulua auzitegi nagusien salen esku uzten duela honakoei buruz ebaztea: "k) Kontratazioaren arloko errekurtsioak ebazteko eskuduna den organoak emandako ebazpenak; hain zuzen ere, Sektore Publikoko

Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 311. artikuluan aurreikusita dagoen organoak emanda-koak, autonomia erkidegoen edo toki korporazioen eskumenen-esparrukoak diren kontratuei buruz. I) Kasuan kasuko lurraldeko baliabide kontraktualen auzitegi administratiboaren ebazpenak”

Nafarroan, gainera, erabili izan da “auzitegi” izena: Nafarroako Lan Auzitegia, Nafarroako Administrazio Auzitegia, Nafarroako Foru Auzitegi Ekonomiko-administratiboa eta Kontuen Auzitegia.

Batzorde hitzaren esanahia ez dator bat erakunde berri honen espirituarekin. Gainera, alde batera utzi behar da kideek dedikazio eskusiboa duten ala ez, hori baita gertatzen dena antzeko erakunde autonomiko asko eta askotan.

Gainera, batzorde kontzeptuak nolabaiteko menpekotasuna adierazten du; auzitegi hitza errotuago dago, eta araudi europarrak exijitzen duen independentziaren kontzeptua islatzen du.

Beste gai garrantzitsuago bat da lizitazioarekin zerikusia ez duten gaiak planteatzea litezkeela.; esate baterako, kontratuaren aldaketa ez legezkoak. Hori da gertatzen ari dena, adibidez, beste auzitegi batzuetan, eta hori da defentsaren eta segurtasunaren arloko legeak argitu duena eta zabaldu duena Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategin guztirako.

Gainera, “Nafarroako Lizitazio Publikoen Kontrolerako Batzordea” izena kontraesanean dago zerarekin, berez publikoa ez den ente baten presatze- eta esleitze-egintzak —enpresa publiko batekin, esate baterako— errekurrizeko aukera izatearekin.

21. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

30. artikulua aldatzeko zuzenketa, zeinak Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 208. artikulua aldatzen baitu; hain zuzen ere, horrela geldituko litzateke 2. idatz-zatia:

“2. Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak lehendakari bat eta beste bi kide izanen ditu, hirurak Foru Komunitateko Administrazioaren, Nafarroako toki entitateen edo foru lege honen mendeko beste entitate batzuen zerbitzuko jarduneko funtzionarioak, izendapenerako zuzenbideko lizentziaduna edo graduduna izatea eskatu bazitzaie; haien hautapena Nafarroako Gobernuak egiten du, Kontratazio Publikorako Batzordearen Osoko Bilkurak igorritako proposamenarekin bat, baina, alde zuzenetik, Nafarroako Parlamentu-

ari jakinarazi beharko diren hautatuak. Hautapena sei urterako izanen da, eta kideok aukera izanen dute berriz hautatuak izateko. Epe horretarako ordezkioak ere hautatu ahalko dira, kargua hutsik dagoenerako, edo titularrak ez dagoenerako edo gaixorik dagoen kasuetarako.

Batzordeburuak 10 urteko lanbide esperientzia izan beharko du gutxienez, eta prestakuntza berezia kontratazio publikoaren arloan. Kontrolerako Batzordeko buruak Kontratazio Publikorako Batzordeko Osoko Bilkurako sortzetiko kide izan beharko du. Kideek 5 urte baino gehiagoz arituak beharko dute beren jardun profesionalan, eta prestakuntza berezia izan kontratazio publikoaren arloan. Gutxienez ere kideetako bat Toki Administrazio funtzionarioa izanen da”

Zioak: Organoaren izena aldatzen da. Halaber, argitzen da lehendakari bat eta beste bi kide izanen dituela. Proiektuan, hiru kide izanen zituela adierazten zen, eta ez zen argi gelditzen ea kide aruntak bi edo hiru izanen ziren.

Orobat, kendu egin da Toki Araubideko Foru Batzordearen txostena zeinari buruz ez baitzen zehazten aldekoa izan behar zuen ala ez, eta ez zirudien arrazoizkoa toki interesa zela-eta kide guztien txostena eman behar izateak. Nahi dena baldin bada toki administrazioen ordezkartza bat egotea, autonomia erkidegoetako antzeko organo guztietan gertatu den bezala, argi gelditzen dena da kideetako batek Toki Administrazio funtzionarioa izan behar duela, kontuan hartuta errekurtsio askok eta askok udal eta mankomunitateei eragiten ahal dietela.

Era berean, independentzia handiagoa lortzearen, ezarri da Nafarroako Parlamentuari hautapenaren berri eman behar zaiola alde zuzenetik, organo hau sortu duten beste lege autonomiko batzuekiko analogiaz.

Ez zen ezer esaten kideek behar zuten eskarmentuari buruz. Eskatuko ez bazaie ere lehendakariari adinako eskarmenturik, bost urteko esperientzia beharko dute gutxienez; hala ezartzen dute, esate baterako, Nafarroaren biztanleria-kopuru bertsua duten beste leku batzuetako erakundeek.

22. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

30. artikulua aldatzeko zuzenketa, zeinak Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 208. bis artikulua aldatzen baitu; hain zuzen ere, horrela geldituko litzateke 4. idatz-zatia:

“4. Nafarroako Lizitazio Publikoen Kontrolerako Batzordeko kideek batera beteko dituzte batzordeko zeregina eta Administrazioan duten lanpostua, eta erregelamenduz ezartzen diren dietak jasoko dituzte ordainetan, funtzionario diren aldetik dituzten lansariekin bateragarri izanen direnak, eta kontzeptu horiengatik Gobernuo kideentzat ezarritako gehieneko kopuruekin”.

Zioak: Arrazoizkoa iruditzen zaigu dieten arloan hemen ezarritakoa bat etortzea legeak Gobernuo kideentzat ezartzen duenarekin.

23. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

35. artikulua aldatzeko zuzenketa. 6/2006 Foru Legearen hamahirugarren xedapen gehigarriak honako testua izanen du:

“Hamahirugarren xedapen gehigarria. Kontratazio publikoaren arloko erreklamazioen araubidea Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Unibertsitate Publikoari aplikatzea.

Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak egiten dituzten lizitazioetako erreklamazioak Nafarroako Lizitazio Publikoen Kontrolerako Batzordeak ebatziko ditu, non eta erakunde horiek ez duten errekurtsioak ebatzeko organo propio bat jartzen, beteko dituen 2007ko abenduaren 11ko 2007/66/CE Zuzentarauaren eskakizunak; zuzentaru horrek Kontseiluaren 89/665/EE eta 92/13/EEE zuzentaruak aldatu zituen, kontratu publikoen esleipenaren arloko errekurtsio-prozeduren eraginkortasuna hobetzeari dagokionez”.

Zioak: Gaur egun, zehaztu gabe dago hori –gutxienez ere Nafarroako Parlamentuari dagokionez–, ez baita aukera baten edo bestearen alde egiten. Erreklamazioen ebazpena organo espezializatu bakarrean bateratzea egokia dirudi, eta, prozedura-ekonomiagatik, foru legean bertan jaso daiteke, aukera utziz Nafarroako Parlamentuari eta NUPi hori erregelamendu bidez berraztertzea.

24. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berria.

“Kontratazio organoak erabakitzen duenean kontratu bat aldatzea edota kontratu gehigarriak edo osagarriak esleitzea, erabaki hori, betiere,

Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratuko da; jasota agertuko dira erabakia justifikatzen duten zirkunstantziak, irismena eta zenbatekoa, ahalmen hori egoki erabiltzen dela ziurtatzeko. Era berean, behin kontratu nagusia eta osagarriak amaituta, hurrengo datuak Interneten argitaratuko dira; ahal dela, erakunde kontratatzailearen webgunean: lizitazio prezioa, kontratu-exekuziorako epea, lizitatzailen kopurua eta izenak, esleipen-hartzailearen izena, esleipenaren prezioa, lizitazio-prezioarekiko beharrezko-portzentajea, kontratuak izandako aldaketa-kopurua eta horien zenbatekoa, amaierako likidazioaren prezioa, eta zer ehuneko-tan desbideratu den likidazio prezioa lizitazio prezioetik. Jarraian, datu berak erantsiko dira, baina kontratu osagarriari buruzkoak.

Era berean, erabaki hori onartuak izan ziren lizitatzaileri jakinaraziko zaie, eta, gainera, informazio osagarria ere emanen zaie, lizitatzaileri aukera emanen diena, kasua bada, aldaketaren erabakiaren kontra aski oinarritutako errekurtsioa jartzeko, baldin eta legezko eskakizunak ez badira bete”.

Zioak: Kontratuen esleipenak argitaratu egiten diren neurrian, kontratuen aldaketak ere, hasierako kontratuen aldaketak direnez, argitaratu egin behar dira. Horrek hala behar du edozein kontratutan, zenbatekoa edozein dela ere; sarritan, izan ere, hasieran argitalpenik behar ez zuen kontratu bat aldatu eta, zenbatekoaren muga gaindituta, argitalpena behar izaten du. Baldintza bera exijitzen da kontratu osagarrientzat (Kontratu Publikoari buruzko Foru Legearen 74. artikulua), hasierako kontratistarentzako kontratazioak baitira, publizitate-rik eta lehiarik gabeak, eta kontrolak orokortu beharra dago. Neurri hori gomendatuta agertzen zen Kontratazio Publikoaren Egoera Aztertze eta Diagnostikatzeko Adituen Batzordeak eginitako txosten eta ondorioetan, 2004an argitaratu baitzen, eta beste autonomia erkidego batzuek, dagoeneko, egin dute egokitzapena (konparazio baterako, Balear Uharteetako Administrazio Onaren eta Gobernu Onaren martxoaren 31ko 4/2011 Legea, Extremadurako Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretako urtarrilaren 24ko 1/2012 Legea eta Aragoiko Sektore Publikoko Kontratuen Arloko Neurriari buruzko otsailaren 24ko 3/2011 Legea). Hedapen publikoarekin, hasierako lizitatzaileri aukera ematen zaie errekurtsioa jartzeko, bai eta kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa ere, baldin eta iruditzen bazaie aldaketa ez dela legezkoa; hala gertatu zen, hain zuzen, zioen azalpenen aipatzen den Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaian, zeinetatik sortzen baita kontratu aldatuen araubidea Nafarroan ere aldatzeko beharra.

25. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa.

“Foru lege honek indarra hartu baino lehenago onetsitako kontratazio-espedienteen ondoriozko kontratuak, edo, halakorik behar ez denetan,

baldintza agiriak foru lege hau indarrean sartu aurretik publizitatuak dituzten kontratuak, aurreko araudiaren menpe geldituko dira, nahiz eta kontratuon esleipenaren aurkaratze-araubidea eta hasierako dokumentazioan aurreikusi gabeko kontratu-

en aldaketen araubidea foru lege honek ezarritakoa izanen den”

Zioak: Oraingo testuak ezartzen duenez, lege hau aplikatuko zaie legea indarrean sartu ondotik esleitu diren kontratuei. Problema da kontratazioaren bat egon daitekeela dagoeneko argitaratua eta are eskaintzak eta esleipen-proposamenak ere eginak dituena, eta, foru lege hau dela-eta, errepikatu egin beharko litzateke. Horregatik ezartzen da erreferentzia-data gisa kontratazio-prozeduraren hasierarena; data hori kontratazio-espedientearen onespenera izanen da, edo, halakorik behar ez bada, bereziki prozedura negoziatuetan eta atalasetik beherako prozeduretan, kontuan hartuko dena izanen da lizatazio-iragarkiaren argitalpeneguna edo parte hartzeko eskaerak igorri ziren eguna.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VI. Titulua aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VI. Titulua aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa. Proiektu hori 2012ko urriaren 15eko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarra aldatzeko zuzenketa. 6/1990 Foru Legearen 224. artikuluari beste idatz-zati bat gehitzen zaio, 6. idatz-zatia izanen dena. Testu hau izanen du:

“6. Toki entitateek zuzenean formalizatzen ahalko dituzte itunak irabazi asmorik gabeko elkarte eta entitateekin, toki esparruko eskolen edo prestakuntza-zentroen kudeaketarako; horretarako, eskola edo zentro horien kirol-, musika- edo kultura-jarduerak herritar guztiei zuzendua beharko du, eta ezin izanen da hezkuntza-legediaren arabera ofiziala den irakaskuntzarik eman. Itunean, kasua bada, jasota geldituko da zein izanen den toki entitatearen ekarpen ekonomikoa eta zeintzuk itundutako entitatearen betebeharrak. Itunok, idatz-zati honetan araututa ez dagoenerako, laguntza-kontratueterako xedapenen menpe geldituko dira”.

Zioak: Toki entitateei aukera egoki bat jartzea eskueran toki esparruko zenbait kultur zerbitzu kudeatzeko; izan ere, horrelakoak ez dira ekonomikoki edo teknikoki bideragarriak merkatuaren lehiakortasun-arauen menpe gelditzen direnean, eta arauok dira, oro har, kontratazio publikoan agintzen dutenak.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da funts publikoak erretira ditzan lehenengo etxebizitzaren utzarazpenak gauzatzen dituzten entitate finantzarioetatik.

SUSTAPEN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Sustapen Batzordeak, 2012ko abenduaren 19an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da funts publikoak erretira ditzan lehenengo etxebizitzaren utzarazpenak gauzatzen dituzten entitate finantzarioetatik”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Gobernua premiatzea funts publikoak erretira ditzan lehenengo etxebizitzaren utzarazpenak gauzatzen dituzten entitate finantzarioetatik.

2. Nafarroako Gobernua premiatzea Nafarroan jarduten diren finantza entitate guztiei exijitu diezaizen berehala geldiarazteko lehenengo etxebizitzaren utzarazpen prozesu guztiak”

Iruñean, 2012ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak exijitzen du berehala geldi dadin oinarrizko laguntzako osasun etxeen eta premiazko zerbitzu jarraituko puntuaren ordutegia arautzen duen Foru Dekretuaren izapidetzea.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2012ko abenduaren 19an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak exijitzen du berehala geldi dadin oinarrizko laguntzako osasun etxeen eta premiazko zerbitzu jarraituko puntuaren ordutegia arautzen duen Foru Dekretuaren izapidetzea”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak exijitzen du berehala geldi dadin oinarrizko laguntzako osasun etxeen eta premiazko zerbitzu jarraituko puntuaren ordutegia arautzen duen foru dekretuaren izapidetzea.

2. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak dekretu hori adostu dezan arloko eragile guztiekin (sindikatuak, elkargo profesionalak, gizarte entitateak, elkarte zientifikoak eta udalak)”

Iruñean, 2012ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan onets oinarrizko laguntzako osasun etxeen eta premiazko zerbitzu jarraituko puntuen ordutegia arautzen duen Foru Dekretua.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2012ko abenduaren 19an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan onets oinarrizko laguntzako osasun etxeen eta premiazko zerbitzu jarraituko puntuen ordutegia arautzen duen Foru Dekretua."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez dezan onets Nafarroako Oinarrizko Laguntzako ordutegia eta premiazko zerbitzu jarraitua arautzen dituen foru dekretua.

2. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du berriro hel dakion landa eremuko osasun eskualde oinarrizkoetako langileen kontratazio berrien gaineko akordioari, zeina Osasun Departamentuak

eta sindikatuek 2007ko abenduaren 13an adostu baitzuten. Nafarroako Parlamentuak orobat eskatzen du, akordio horretan esaten denari jarraikiz, 2013an zehar berariazko bilerak egin daitezen mahai sektorialean, aurrera egite aldera landa-eskualde oinarrizkoetako laguntza jarraituaren baldintzak ezartzeko eta berrantolamendua egiteko proposamenak egiteari eta aztertzeari dagokienez, oinarrizko laguntzan larrialdi zerbitzuak arian-arian ezartzeko helburuarekin, adostutakotik abiatuta betiere.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentua premiatzen du Nafarroako medikuen elkargoekin eta gaixoen elkarteekin hitz egin dezan eta haien ekarpenak jaso ditzan"

Iruñean, 2012ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko langileen lan egutegia 2013rako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Onestea Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2013ko egutegia. Hauexek izanen dira asteburutik kanpoko jaiegunak eta egun bereziak:

- Uztailaren 8a, 9a, 10a, 11 eta 12a: Sanferminetako jaiegunak.

- Uztailaren 26a, abuztuaren 16a eta abenduaren 31: jaieguna.

Gainerako jaiegunak izanen dira Foru Komunitateko administrazioarako oro har ezarritakoak.

2. Ohiko lanaldia egun indarra duen berbera izanen da, astelehenetik ostiralera.

Urtarrilaren 1etik 13ra bitartean, lanaldia 08:00etatik 15:00etara bitartekoa izanen da. Sartzeko, 07:30etik eta 08:30era bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:30etik eta 15:30era bitarteko malgutasuna. Betiere, egunean 7 ordu benetako bete beharko dira lanean.

Uztailean, abuztuan eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian lanaldia 08:00etatik 14:30era bitartekoa izanen da. Sartzeko, 07:30etik 08:30era bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:00etatik 15:00etara bitarteko malgutasuna. Betiere, egunean 6 ordu eta erdi bete beharko dira lanean.

Abenduaren 24an lanaldia 4 ordu eta erdikoa izanen da, 8:00etik 12:30era.

3. Gainerako egunetarako lan txanda hauek izanen dira langile guztiek bete beharrekoak, talde bakoitzaren berezitasunak kontuan harturik:

- a) Goizeko txanda.
- b) Goiz eta arratsaldeko txanda.
- c) Arratsaldeko txanda.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2013rako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Ezartzea Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2013. urterako hauxe izanen dela:

Urtarrilaren 1etik 13ra bitartean eta uztailean, abuztuan eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian:

– Astelehenetik ostiralera:
09:00etatik 14:00etara.

– Uztailaren 8an, 9an, 10ean, 11n, 12an eta 26an, eta abuztuaren 16an itxita egonen da, eta baliogabeak izanen dira ondorio guztietarako.

Urtarrilaren 14tik ekainera bitarteko hilabetetan, irailaren bigarren hamabostaldian eta urritik abendura:

– Astelehenetik ostegunera:
09:00etatik 14:30era.
17:00etatik 19:00etara.

– Ostiralean: 09:00etatik 14:30era.

– Abenduaren 24an zabalik egonen da 9:00etatik 12:30era.

– Abenduaren 31n itxita egonen da, eta baliogabea izanen da ondorio guztietarako.

2. Baliogabeak izanen dira, halaber, larunbat, igandeak eta Nafarroako Foru Komunitaterako eta Iruñerako ezarritako jaiegunak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

